



1. Gogoetan

[Aidan Chambers](#)- en testuak irakurtzea plazera da. HGL-ko idazle moduan hainbat sari garrantzitsu jaso ditu bere ibilbide luzean, baina kritikari, irakasle, eta, batez ere, irakurzaletasunaren sustatzaile ere bada. Azken honen gainean hitz egiten digu gaur aurkezten dizuegun testu honetan.

"[Irakurleak nola prestatu](#)" izenburupean hitzaldia eman zuen 1996an [IBBY](#)k antolatutako 25. Kongresuan: haurrekin ari den edonork ezagutu beharko lukeen testu bat. Bertan, Chambersek, "*personak irakurle osasuntsu eta konprometitu gisa hazten diren ingurugiro bat, kultur ekologia bat*" sortzeko giltzak ematen dizkigu. Artikulu osoa [hemen](#) Kolonbiako *Hojas de Lectura* aldizkariak gaztelaniaz emana. (Erreferentzia [haurrak, liburuak & konpania](#) Blogetik hartua).

Laburpen gisa, Chambersen zenbait aholku:

- **Haurrekin hitz egin** bera ezagutzeko, bere irakurketak ezagutzeko, bere gustuko gauzak, zaila edo aspergarria iruditzen zaiona...
- **Ozen irakurri.**
- **Liburuetaz egoki hitz egiten duen jendea entzunarazi**, idazleak adibidez.
- Irakurtzera ematen ditugun **liburuak guk geuk irakurri.**
- Irakurketarako **denbora nahikoa eskaini.**

2. Egitasmoa martxan

Bularretik Mintzora egitasmoaren etengabeko [ebaluazioarekin](#) jarraitu ahal izateko, 2011ko udazkenean, egitasmoan parte hartzen ari diren 34 ikastetxetan, Haur Hezkuntza duten zentroetan alegia, 1.400 galdekizun banatu ziren 3 urteko haurren gurasoen artean. Orain arte egin den lehenengo zenbaketaren arabera, aurreko urteetan bezala, erantzuna %50aren ingurukoa izango dela aurreikusten da. Eskerrik asko parte hartzaile guztiei erakutsitako interesarengatik.

3. Hausnarketa gunea

[Txosten honetan](#) *Bularretik Mintzora* egitasmoaren gurasoen bukaerako galdekizunen emaitzak aurkezten dira. Ebaluazioa, 2009-2010, ikasturteetik 2010-2011, ikasturtera, egitasmoan parte hartu duten 5 urteko haurren gurasoei egin zaie. Ekimen hau 2011ko azkeneko hiruhilekoan egin da. Bukaerako ebaluazioak bi helburu ditu:

1. *Bularretik Mintzora* egitasmoaren ekimenen eragin kuantitatibo eta kualitatiboa aztertu da: egitasmoa abian jarri zenetik zer nolako aldaketak eman diren, gurasoen iritziz, haurren irakurketa ohituretan, hiru esparruetan, hau da, eskolan, etxean eta liburutegian.
2. Bigarren helburua *Bularretik Mintzora* egitasmoak sortu dituen Haur Literaturako materialak eta formazio ekimenak baloratzea da.

Hasierako ebaluaketaren emaitzekin konparaketa kuantitatiboa egiten da. Horrela, arloz arlo, lortu diren aldaketak aztertzen dira, zenbait datu eta ondorio lortuz egitasmoaren eragina eta eraginkortasuna neurtzeko.

4. Ongi pasatzeko!

Iribarre egiten zuen arraina [Jimmy Liao](#) idazle eta ilustratzaile taiwandarraren liburu batean oinarritutako marrazki bizidunetako laburmetraia da. Bi bertsiotan ikusi daiteke: [laburra](#) edo [luzea](#). Egun egile asiar ezagunenetakoa dugu, eta xehetasunez beteriko ilustrazio xalo koloretsuak dira bere ezaugarri. Ariketa interesgarria izan daiteke baita ere, bere lanetako bat [Desencuentros](#), eta [Natalia Colomboren Hurbil](#) alderatzea.

Buletina hileroko e-postaz jaso ahal izateko izena eman gure webguneko [Guraso Berriak](#) atalean.

Informazio gehiago: www.bularretikmintzora.org eta www.galtzagorri.org